

FAMILIA ETA GENERO BERDINTASUNA

Zer ulertzen dugu genero berdintasuna diogunean? Emakume eta gizonek bizitzan aukera eta ahalbide berdinak izatea ikuspuntu sozial batetik baliotsuak diren baliabide eta ondasunak eskuratzeko. Helburua, batak zein besteak bizitzan aukera berdintasuna izatea da.

Genero-berdintasunean oinarritutako gizarte-errealitateak aldaketak eskatzen ditu esparru sozial desberdinetan: lanean, familian, hezkuntzan, instituzioetan, ekonomian... Heldu bakoitzak generoaz duen ustea, hazkuntzaren jardunean eragiten du. Uste edo ideia horiek, maiz, kulturen hain txertatuak egonik, ondorioetan pentsatu gabe onartzen dira.

Familiak, eragin iturri desberdinei jarri behar die arreta genero kontuan:

- Familia bera. Neska eta mutilek, beraien amek eta aitek nola jokatzen duten ikusten dute eta hori bera errepikatzen jotzen dute.
- Testuingurua. Familia zabala, berdinkideak, irakasleria, jolasak...
- Komunikabideak. Telebista, irratia, zinema...

Berdintasuna familian bertan lantzeko, ezinbestekoa da seme-alabei transmititzen zaizkien baloreak kontuan hartzea. Horretarako, errespetua behar da, sentimenduak baloratzea, eduki sexistarik gabeko jolasak eta jarduerak sustatzea... Horrela, euren gustu eta lehentasun propioen arabera eraikiko dute umeez errealitatearen ikuspegia, ez duten "sexuaren" arabera.

Gainera, gizakiok berezkoa dugu imitatzea, eta hala ikasten dugunez, seme-alabek gurasoetan islatzen diren rolak errepikatzen dituzte batzuetan. Hori dela-eta, familian seme-alabak heztean kontuan hartu beharreko beste alderdi bat bikotearen erantzunkidetasuna da, alegia, umeez ikustea helduek erantzukizunak partekatzen dituztela eta ez dagoela sexuen arabera desberdintasunik.

Komunikabideek, jendartearen isla izanik, genero berdintasuna, oinarritzko giza eskubidea dela erakutsi beharko lukete. Genero berdintasunean aditu direnek, bat datoz sexismoak populazio gaztearengan duen eraginean. Gertakari honek, bat egiten du egun telebistan saltzen duten harremanen ereduarekin, non jeloskortasuna maitasun keinu bat den, erasokortasun ezaugarri maskulinoa den, edota emakumeek gizonen gustua egin behar duten eta gizonek emakumeak babestu.

Testuinguru honetatik sortzen da, familia, genero gaian sentsibilizatzeko beharra, seme-alabek etxean ikasten baitituzte, neska edo mutil, gizon edo emakume izatearen esanahiaren oinarritzko jarraibideak eta ziurrenik heldu bizitzan bete beharko duten rola bereganatzen dute.

LABURPENA

Testuinguruak baldintzatuko du, neskek edo mutilek, genero maskulino edo femeninoaz garatuko duten kontzeptua. Kulturalki transmititzen diren generoaren estereotipoak, ikasiak dira eta gure ezagutzen baitan kokatzen dira. Horrela, jaiotzetik generoaren arabera modu batean edo bestera jokatzeko ikasten dugu, gure guraso, familia, lagunengatik... onartuak izateko eta oro har, jendartearengatik onespena jasotzeko.

ETXADI

Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia